



ARTISAU eta SORTZAILE AZOKA Parte hartzeko oinarriak

EGUNA: 2023ko maiatzak 7, igandea.

LEKUA: Herriko plaza eta Aritzaga kalea (ohinezkoen eremua)

ORDUTEGIA: 10:00etatik 14:30etara

MUNTAIA: 8:00etatik 10:00etara

DESMUNTAIA: 14:30etatik aurrera

STAND-a:

Artisau bakoitzak bere karpa ekarriko du, inoiz ez 6x3m baino handiagoa.

Karparik ez duten artisau edo sortzaileek antolakuntzari jakinarazi eta 3x3mko karpa bat jarriko zaio.

Argindarra beharrezkoa izanez gero antolakuntzari alde zurratik abixatu behar zaio.

2 mahai artisau bakoitzeko (2 x 0,7 m)

2 aulki artisau bakoitzeko

PARTEHARTZEKO EREMUA:

E.E.A.-n, Nafarroan edo Iparraldean bizi diren artisauak

OINARRI OROKORRAK:

- 1) Erakusgai edo salgai egongo diren produktuen egilea izatea derrigorrezkoa izango da, bai eta azoka egunean langintzaren erakustaldia egitea.
- 2) Artisauak berak landu ez dituen produktuak ez dira onartuko
- 3) Gehitu beharreko dokumentazioa ondorengoa da:
 - a) Parte-hartzeko eskaera behar bezala beteta eta izenpetuta.
 - b) Dagokion herrialdean artisauen erregistroan alta emanda dagoela egiaztatuko duen ziurtagiri eguneratua.
 - c) Zergadunaren Jarduera Ekonomikoen ziurtagiri eguneratua (Foru Ogasuna).
 - d) Autonomoetako azkenengo erreziboaren fotokopia
 - e) Erakusgai egongo diren produktuen 2 argazki eta aurrez muntatutako stand-aren argazki bat.
 - f) Curriculum vitae xehe bat.
 - g) Hala ere, Orio-Aiako eskulangile kualifikazioa ez duten eta eskulangintza jarduera iraunkorrik egiaztatzen ez duten pertsonentzat plaza kopuruaren %20a gordeko da. Orio-Aiako artisauak ez dute oinarri hauetako b), c), d), e) eta f) puntuetan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko.

- 4) Eskerak **derrigorrez telematikoki aurkeztu beharko dira www.orio.eus bulego elektronikoa**n, ziurtagiri digitala (Izenpe, eDNI, Bak@, ...) erabilia.
- 5) Eskerak aurkezteko epea martxoaren 24ean itxiko da, eta aukeratutako artisauei martxoaren bukaeran jakinaraziko zaie.
- 6) Honako deialdia informazio izaera du soilik, eta berau jaso izanak ez du esan nahi azokan parte hartzeko eskubidea ematen duenik. Onartze agiria bidaliko zaien artisauek soilik parte hartu al izango dute.
- 7) Parte hartzeko oinarriak betetzen ez dituzten artisauek kanpoan uzteko eskubidea izango du antolatzaileak, eta azokaren araudia betetzen ez dituzten produktuak stand-etatik kendu egingo dira.
- 8) Antolatzaileek ez dira suertatu litezkeen kalte, galera edo lapurretatik erantzule izango.
- 9) **ARTISAU AZOKAN** parte hartuko duten artisauek **EZ DUTE** dieta moduan diru saririk jasoko.
- 10) Stand-ak muntatzeko eta deskargatzeko, artisauek bakoitzak auto baten sarbide baimena izango du. Ondoren, oinezko gunetik atera beharko du eta ohiko aparkalekuetan aparkatu. Ez da artisauentzako aparkalekurik erreserbatuko.
- 11) 25 Stand bakarrik baimenduko dira, honako espezialitate hauetan banatuta. Azokaren aniztasuna bermatzearren, eskaera ezberdinen artean zozketa egingo da, martxoaren 31ean, 13:00etan udal batzar aretoan:
 - a) Ogia eta gozogintza: 2 postu
 - b) Taloak: 1 postu
 - c) Eztia eta Gazta: 2 postu
 - d) Lore-apaindurak eta landareak: 2 postu
 - e) Bitxigintza: 3 postu
 - f) Zurgintza: 2 postu
 - g) Zeramika edo buztina: 2 postu
 - h) Xaboi eta ukenduak: 2 postu
 - i) Larrua eta ohialgintza: 2 postu
 - j) Bestelako eskulangintzak: 2 postu
 - k) Orio-Aiako eskulangileak: 5 postu.
- 12) Irabazi asmorik gabeko elkarteek lehentasuna izango dute postuak banatzerako orduan.
- 13) Antolatzaileek arau hauek interpretatzeko eta egoki ikusten duten modaun aldatzeko eskubidea izango dute.

ARTISAU AZOKA 2023

ESKAERA ORRIA

ESKATZAILEA:

IZEN ABIZENAK			
ERAKUNDEA			
NAN			
HELBIDEA			
HERRIA		P.K.	
TELEFONOA		E-POSTA	

POSTUA:

PRODUKTUAK:		
NEURRIAK: (gehienez 6x3m)		
KARPA BEHAR DUZU?	BAI	EZ
ARGINDARRA BEHAR DUZU?	BAI	EZ

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- Dagokion herrialdean artisauen erregistroan alta emanda dagoela egiaztatuko duen ziurtagiri eguneratua.
- Zergadunaren Jarduera Ekonomikoen ziurtagiri eguneratua (Foru Ogasuna).
- Autonomoetako azkenengo erreziboaren fotokopia
- Erakusgai egongo diren produktuen 2 argazki eta aurrez muntatutako stand-aren argazki bat.
- Curriculum vitae xehe bat.

Orion, 2023ko _____ren _____a.

Sinadura: